

## Rolf Steinhilper Doktorea, Berrekoizpen arloan mundu mailako erreferentea, Mondragon Unibertsitatean izan da.

2016/12/01

Steinhilper Doktorea 35 urtez aritu da lanean Fraunhofer Ikerketa Elkartearekin ekoizpen, berrekoizpen, birziklatze eta ekodiseinu proiektuetan. Gaur egun, Ekoizpen eta Berrekoizpen Teknologien irakaslea da Bayreutheko Unibertsitatean (Alemania) eta 2006 geroztik Prozesuen Berrikuntzan proiektu taldeko arduraduna ere bada Fraunhoferren. Bertan, Berrekoizpenerako Teknologien Zentro Europarra kudeatzen du.

Steinhilper Doktorearen bisita REMACOMPIND proiektuako lanen segimendu planaren baitan kokatzen da, non Goi Eskola Politeknikoko lau ikerketa lerrok eta CEGASAk hartzen duten parte Steinhilper Doktorea eta Orkestraren laguntzarekin.

REMACOMPIND proiektua IHOBek bultzatutako Ekoberrikuntza proiektuen baitan kokatzen da eta helburu du berrekoizpen aktibitateen garapenerako aukerak aztertzea, hala nola EAEn esparru horretan I+G+i-rako dauden aukerak identifikatzea. Horretarako, piezak errekuiperatzeko plan baterako merkatu-nitxoak identifikatu eta definituko dira. Plan horrek osagarri, produktu eta ekipo industrialen remanufaktura azkarra eta ekonomikoa ahalmenu behar du, beti ere egungo araudiak betetzen direla bermatuz.

